

Xabier Kaltzakortaren sarrera-hitzaldia

Agintariak,

Markina-Xemeingo alkatea eta zinegotziak,

Euskaltzainak (oso, ohorezko, urgazleak),

Xabier Kaltzakortaren etxeakoak,

Markinarrak eta Lea-Artibaikoak,

jaun-andreak,

egun on guztioi !

Gaur dator Euskaltzaindiaren magalera Xabier Kaltzakorta markinarra. Etorri ere, ondo hornituta dator, urte luzeetan eginiko lanak bermatzen duelako haren sona.

Herri literatura izan du solasbide Xabier Kaltzakortak. Hala esanda, badirudi bestelako literatura motak zokondoan utzi dituela. Ez horixe! Literaturaren hegaletan barneratua, ikerlari fin eta trebearen eskua ikusten da bere lanetan, gure hizkuntza eta kulturaren altxorra azalerazten baita borborka Xabierren idatzietan.

Idatziak ez eze, ahozkok ere izan ditu Kaltzakortak ikergai eta aztertoki. Aspalditik konturatu zen Euskaltzaindia horren balioaz eta Herri-literaturaren Batzordean partaidetza luze-zabala du euskaltzain oso berriak.

Langintza horretan jarraitzera eta beste batzuetan ere ekitera (*ekin eta jarrai*) deitua da gaur Xabier Kaltzakorta euskararen Akademian. Ziur nago fruitu oparoak ekarriko dizkiola gure Akademiari eta euskalgintzari, hitz batez esateko, euskal gizarte osoari.

Eskerrak,beraz, hona hurreratu zareten guztiei eta batez ere, Markina-Xemeingo Udalari eta Markina-Xemeingo herritarrei eta gogoratu dezagun Xabier Kaltzakortak Euskaltzaindiaren eta euskararen alde egingo duen zina. Horixe izan dadila gure gaurko ekitaldiaren lekukotza eta oroigarri!

Markina-Xemeinen, 2014ko azaroaren 29an

Andres Urrutia, euskaltzainburua